

JAKINTZAGAIA: EUSKARA ETA LITERATURA Batxilergoa

- [KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK](#)
- [DESKRIPTORE OPERATIBOAK](#) (FUNTSEZKO KONPETENTZIAK)
- [OINARRIZKO JAKINTZAK](#)

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	LOTURA FUNTSEZKO KONPETENTZIEKIN (Deskriptore operatiboak)
1. Munduko hizkuntza-aniztasuna azaltzea eta balioestea, EAEko eta inguruneke errealitate elebidun eta eleaniztunaren ezagutzatik, euskararen eta gaztelaniaren dialekto-aberastasunaren ezagutzatik eta hizkuntzen arteko kontaktuari lotutako fenomenoei buruzko gogoetatik abiatuz, hizkuntzen arteko gogoeta bultzatzeko, hizkuntza-estereotipoak eta hizkuntza-aurreiritziak ezeztatzeko, aniztasun hori kultura-ondarearen iturri gisa baloratzeko eta euskararen erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko. (Azalpena)	1.1. EAEko eta Espainiako hizkuntza koofizialak eta haien aldaerak (eta, bereziki, norberaren lurraldekoa) hizkuntza-aberastasunerako baliabide gisa ezagutzea eta baloratzeko, haien garapen historiko eta soziolinguistikoaren azalpenetik eta egungo egoeratik abiatuz, eta ahozko adierazpenetan, idatzizkoetan eta multimodaletan dialektoen ezaugarriak (dialekto-aniztasunari lotuta dauden hizkuntza-ezaugarriak eta soziolektoei edo erregistroei dagozkienak bereiziz) eta hizkuntzen hizkuntza- eta diskurtso-alderdiak esplizituki eta metahizkuntza egokiarekin egiaztatuz. 1.2. Hizkuntza-aurreiritziak eta hizkuntza-estereotipoak zalantzan jartzea eta gezurtatzea, kultura-, hizkuntza- eta dialekto-aberastasuna errespetatu eta baloratzeko jarrera agertuz, hizkuntzen arteko kontaktuaren fenomenoen inguruko ikerketatik eta gogoetatik abiatuz, hizkuntza berean dauden arau kultuen eta estandarren aniztasuna kontuan hartuz, eta sare sozialek eta komunikabideek eta hizkuntzaeskubideei eta hizkuntzen arteko bizikidetzaren ereduak buruzko ikerketak betetzen duten zereginari arreta berezia jarritz. 1.3. EAEko hizkuntza-errealitatearen ezaugarriak aztertzea oinarrizko ezagutza soziolinguistikoen bidez, eta euskarekin hizkuntza-ohitura eta hizkuntza-portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, euskararen erabilera lehenetsiz eta eskola- eta gizarte-bizitzaren hainbat esparrutan eta euskararen normalizazioari eta euskal	HKK1, HKK5, KE2, KE3, HK1, HK2, HK3, KAKK1, KAKK2



	kulturaren transmisio eta sorkuntzari lotuta ikastetxean eta ingurunean garatzen diren ekimenetan jarrera proaktiboa eta afektiboa agertuz. 1.4. Hizkuntzen funtzionamenduaz jabetzea eta hizkuntzen arteko gogoetak hizkuntzak ikasteko eta ezaugarriak konparatzearen bidez komunikaziorako konpetentzia garatzeko egiten duen ekarpena baloratzea.	
2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu akademikoak eta komunikabideetakoak bereziki kontuan hartuz, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena jasoz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta testu horien fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzuz, ezagutza eraikitzeke, iritzia osatzeko eta gozamen- eta aisiaaukerak zabaltzeko. (Azalpena)	2.1. Hainbat esparrutako berezko ahozko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen zentzu orokorra, egitura, informazio garrantzitsua (komunikazio-beharren arabera) eta igorlearen asmoa identifikatzea, kodeen arteko interakzioa aztertuz. 2.2. Ahozko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen forma eta edukia kritikoki baloratzea, erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikaziprozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	HKK2, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII4, HK3
3. Ahozko testuak eta testu multimodalak zehaztasun, jariakortasun, koherentzia, kohesio eta erregistro egokiarekin sortzea, testu akademikoei lehentasun berezia emanaz eta diskurtso-genero desberdinen berezko konbentzioak kontuan hartuz, eta ahozko interakzioetan errespetuz eta kooperazioan parte hartzea, ezagutza eraiki eta lotura pertsonalak ezartzeko zein gizarte-testuinguru desberdinetan era aktibo eta informatuan esku hartzeko.	3.1. Hainbat ikuspuntu jasoko dituzten interes zientifiko eta kulturalako eta garrantzi akademiko eta sozialeko gaiei buruzko ahozko azalpen eta argudiatze formalak egitea plangintza-maila desberdinekin, diskurtso-genero bakoitzaren berezko konbentzioetara egokituz eta jariora, zehaztasuna, koherentzia, kohesioa eta erregistro egokia agertuz, hainbat euskarritan eta hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak eraginkortasunez erabiliz. 3.2. Ahozko interakzioetan (formaletan eta informaletan) eta talde-lanean era aktiboan eta egokian parte hartzea, entzute aktiboko jarrerekin eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-adeitasunerako estrategiekin, erabilera diskriminatzaileak (sexistak barne) saihestuz eta baztertuz.	HKK1, HKK3, HKK5, KE2, STEM4, KD2, KD3, KPSII5, HK2, EK3

(Azalpena) 4. Idatzizko testuak zentzu kritikoarekin eta hainbat irakurketa-xederekin ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, testu akademikoak eta komunikabideetakoak arreta berezia eskainiz, zentzu orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutuz, informazio esplizitua txertatuz eta beharrezkoak diren inferentziak eginez, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiari eta formari buruzko gogoeta eginez eta kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, ezagutza eraikitzeke eta askotariko komunikazio-beharrei eta komunikazio-interesei erantzuteko. (Azalpena)	4.1. Idatzizko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen zentzu orokorra, egitura, informazio garrantzitsua eta igorlearen asmoa identifikatzea, testu akademikoak eta komunikabideetakoak bereziki kontuan hartuz, beharrezkoak diren inferentziak eginez eta irakurketa-xede desberdinak agertuz. 4.2. Idatzizko testu eta testu multimodal konplexuen eta/edo espezializatuen forma eta edukia kritikoki baloratzea, erabilitako kanalaren kalitatea, fidagarritasuna eta egokitasuna eta erabilitako komunikazio-prozeduren eraginkortasuna ebaluatuz.	HKK2. HKK3. HKK5. KE2. STEM4. KD1. KPSII4. HK3
5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, esparru akademikoko diskurtso-generoak bereziki kontuan hartuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskari zehatzei erantzun informatua, eraginkorra eta sormenezkoa emateko. (Azalpena)	5.1. Curriculumeko gaiei edo gizarte- eta kultura-interesekoei buruzko idatzizko testu eta testu multimodal akademiko koherenteak, kohesionatuak eta erregistro egokikoak lantzea eta, aldez aurretik, komunikazioegoera, hartzailea, xedea eta kanala kontuan hartuko dituen plangintza-prozesu bat eta zirriborroak bakarka, berdinen artean edota beste kontsulta-tresna batzuen bidez idazteko eta berrikusteko prozesu bat egitea. 5.2. Idatzizko testuak eta testu multimodalak aberasteko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoarekin eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin.	HKK1. HKK3. HKK5. STEM4. DK1. DK2. DK3. PSIIK5. HK2. EKK3
6. Hainbat iturritako informazioa hautatzea eta egiaztatzea, haren fidagarritasuna eta	6.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitzea, hautatzea eta egiaztatzea, informazio horren biltegiatze eta berreskuratzearen kudeaketa eta irakurketa-helburuen	HKK3.

egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz, eta informazio hori integratzea eta ezagutza bihurtzea komunikatu ahal izateko, ikuspuntu kritiko eta pertsonala eta, aldi berean, jabetza intelektualaren errespetatuko duena agertuz, bereziki curriculumeko gaiei edota irakurritako literatura-obrei lotutakoei buruzko ikerketa-lanen esparruan. (Azalpena)	araberako egokitasunaren ebaluazioa kontuan hartuz; eskema propioetan antolatzea eta integratzea; eta berregituratzea eta era sortzailean komunikatzea, eta jabetza intelektualarekiko ikuspuntu kritiko eta errespetuzkoa hartuz. 6.2. Albisteen eta informazioen egiazkotasuna ebaluatzea, sare sozialak eta beste ingurune digital batzuk bereziki kontuan hartuz, analisia, kontrastea eta egiaztapena egiteko jarraibideei jarraituz, tresna egokiak erabiliz, informazioaren alborapenen aurrean jarrera kritikoak agertuz eta faltsukerien hedapena saihestuz. 6.3. Curriculumeko gaiei eta interes kultural, pertsonal eta sozialeko gaiei buruzko ikerketa-lanak egitea era autonomoan eta hainbat euskarritan, bakarka edo modu kooperatiboan, hautatutako informaziotik abiatuz, jabetza intelektualaren errespetatuz eta informazioa behar bezala erreferentziatuz. 6.4. Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, osasungarri eta jasangarriko ohiturak hartzea, arriskuak ebaluatuz eta erabiltzean gailuak, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena babesteko neurriak aplikatuz.	STEM4. KD1, KD2, KD3, KD4. KPSII4. HK2. EK3 
7. Literatura garaikideko obra garrantzitsuak plazer- eta ezagutza-iturri gisa autonomiaz hautatzea eta irakurtzea, obren aniztasunari, konplexutasunari eta kalitateari dagokienez bilakaera bat izango duen irakurketa-ibilbide bat konfiguratzeko, eta irakurketa-esperientziak partekatzea, irakurketa-identitatea bera eraikitzeke eta irakurketaren gizarte-dimentsioak gozatzeko. (Azalpena)	7.1. Irakurketa gidaturako proposamenei lotutako literatura garaikideko obra garrantzitsuak era autonomoan aukeratzea eta irakurtzea, literatura-saiakera eta tradizioarekin loturak ezartzen dituzten egungo obrak barne, eta irakurketa- eta kultura-ibilbide pertsonalaren aurrerapena jasota uztea, irakurgaiak hautatzeko irizpideak, literatura-kulturan sartzeko moduak eta irakurketa-esperientzia argudioekin azalduz. 7.2. Irakurketa-esperientzia partekatzea, esperientzia hori gozamen- eta ezagutza-iturri gisa baloratuz eta metahizkuntza espezifikoak erabiliz; eta interpretazio pertsonal bat lantzea, beste obra batzuekin eta beste esperientzia artistiko eta kultural batzuekin lotura argudiatuak ezarri.	HKK1, HKK2, HKK4, KD2, KD3, KPSII1.1, HK1, KAKK1, KAKK2, KAKK3.1, KAKK3.2
8. Euskal Herriko, Espainiako eta Hispanoamerikako literaturako obra	Ondorengo ebaluazio-irizpidea espezifikoak da Euskara eta Literatura I eta	HKK1, HKK2, HKK4,

garrantzitsuak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, metahizkuntza espezifiko bat erabiliz eta esperientzia biografikoa eta literatura- eta kulturazagutzak mobilizatuz, askotariko testuen eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen arteko loturak ezartzeko, kultura-mapa bat osatzeko, literaturaz gozatzeko aukerak zabaltzeko eta literatura-asmoko testuak sortzeko. (Azalpena)	Gaztelania eta Literatura I irakasgaietarako: 8.3. Ahozko aurkezpen batean, saiakera batean edo aurkezpen multimodal batean gauzatu beharreko ikerketa-proiektuak garatzea, irakurketa gidatuko euskal literaturako eta Espainiako literaturako klasikoen eta beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural klasiko eta garaikide batzuen arteko lotura argudiatuak ezarriz (gai, topiko, egitura, hizkuntza, adierazpen-baliabide eta balio etiko eta estetikoaren arabera) eta irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala azalduz. Ondorengo ebaluazio-irizpidea espezifiko da Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II irakasgaietarako: 8.3. Ahozko aurkezpen batean, saiakera batean edo aurkezpen multimodal batean gauzatu beharreko ikerketa-proiektuak garatzea, irakurketa gidatuko XIX. mendearen azken laurdeneko eta XX. eta XXI. mendeetako Euskal Herriko, Espainiako edo Hispanoamerikako literaturako obren eta beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural klasiko eta garaikide batzuen arteko lotura argudiatuak ezarriz (gai, topiko, egitura, hizkuntza, adierazpen-baliabide eta balio etiko eta estetikoaren arabera) eta irakurleak irakurketan duen inplikazioa eta erantzun pertsonala azalduz.	HK1. KAKK1, KAKK2, KA. KAKK3.2, KAKK4.2. 
9. Hizkuntzaren egiturari eta erabilerei buruzko ezagutza esplizitu eta sistematikoa sendotzea eta horretan sakontzea, eta terminologia egokiarekin egin beharreko hizkuntza- eta diskurtso-aukeraketei buruz era autonomoan gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko, komunikazio-errepertorioa handitzeko eta ahozko eta idatzizko trebetasunak zein ulermen eta interpretazio kritikorako	9.1. Testu propioak berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, metahizkuntzazko eta hizkuntza arteko gogoetan oinarrituta aldaketak argudiatuz eta metahizkuntza espezifiko erabiliz, eta ulertzeko arazoak identifikatzea eta konpontzea, hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko ezagutza esplizituak erabiliz. 9.2. Igorlearen komunikazio-xedearen eta hizkuntza-aukeraketen arteko erlazioa eta hartzailearengan dituen ondorioak azaltzea eta argudiatzea, hizkuntzaren ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifiko erabiliz. 9.3. Hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi garrantzitsuei buruzko ikerketa-proiektu txikien emaitzak lantzea eta aurkeztea, hipotesiak formulatuz eta alderdi orokorrak ezarriz, kontzeptu eta hizkuntzaterminologia egokiak erabiliz eta	HKK1, HKK2, KE2, STEM2, KPSII5.



trebetasunak hobetzeko. (Azalpena)	hiztegiak, eskuliburuak eta gramatikak autonomiaz kontsultatuz.	
10. Komunikazio-jardunbideak bizikidetza demokratikoaren, gatazkak elkarriketa bidez kudeatu eta konpontzearen eta pertsona guztien eskubideberdintasunaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidezko nagusikeriak baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa eta demokratikoa ere bultzatzeko. (Azalpena)	10.1. Hizkuntzaren erabilera sexistak eta diskriminatzaileak eta hitzaren bidezko nagusikeriak eta hizkuntzaren erabilera manipulatzaileak identifikatzea eta desagerraraztea, erabilitako hizkuntza-, testueta diskurtso-elementuen inguruko gogoetatik eta azterketatik eta pertsonen arteko komunikazioa zuzentzen duten ez-hitzezko elementuetatik abiatuz. 10.2. Gatazkak elkarriketa bidez kudeatu eta konpontzeko eta adostasunak bilatzeko estrategiak erabiltzea, solaskideen iritzi eta sentimenduekin jarrera enpatikoa eta errespetuzkoa agertuz, esparru pertsonalean zein hezkuntza- eta gizarte-esparruan.	HKK1, HKK5, KE3, KD3, KPSII3.1, HK1, HK2, HK3.

DESKRIPTORE OPERATIBOAK (FUNTSEZKO KONPETENTZIAK) Batxilergokoak

(HKK) HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

HKK1: Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten du, ahoz, idatziz, siglen bidez z edo multimodalki, jariatasunez, koherentziaz, zuzentasunez eta testuinguru sozial eta akademikoetara egokituz, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko, ezagutza sortzeko eta iritziak argudiatzeko nahiz pertsonen arteko harremanak ezartzeko eta zaintzeko.

HKK2: Hainbat eremutako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, jarrera kritikoz ulertzen,

(KE) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA

KE1: Arintasunez, egokitasunez eta zuzentasunez erabiltzen ditu hizkuntza bat edo gehiago, famili hizkuntzaz eta hizkuntza ofizialez gain, bere komunikazio-beharrei bat-batean eta autonomiaz erantzuteko, eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguru desberdinetan.

KE2: Bere esperientzietatik abiatuta, banakako hizkuntza-errepertorioa modu sistematikoan zabaltzeko eta aberasteko estrategiak garatzen ditu, modu eraginkorrean komunikatzeko eta, aldi berean, hizkuntzen arteko ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko.



interpretatzen eta baloratzen ditu, eta arreta berezia jartzen du testu akademikoetan eta komunikabideetako testuetan, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.

HKK3: Hainbat iturritatik datorren euskarazko eta gaztelaniazko informazioa modu autonomoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, eta, horretarako, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz, eta ezagutza bihurtzen du, modu argi eta zorrotzean komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta kritikoa hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.

HKK4: Autonomiaz irakurtzen ditu literaturako lan garrantzitsuak euskaraz eta gaztelaniaz, eta erlazionatzen ditu bere testuinguru soziohistorikoarekin, aurreko eta ondorengo literatura-tradizioarekin eta haren ondareak gaur egun duen arrastoa aztertuz, obren interpretazio arrazoitua eraikitzeko eta partekatzeko, asmo literarioko lanak sortu eta birsortzeko eta pixkanaka mapa kultural bat osatzeko.

HKK5: Komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren, gatazkak elkarrizketaren bidez kudeatzearen eta pertsona guztien eskubideberdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuz eta baztertuz, bai eta botere-abusuak ere, komunikazio-sistemak modu eraginkorrean eta etikoan erabil daitezen eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera proaktiboa izan dadin laguntzeko.

(STEM) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA

STEM1: Arrazoiketa matematikoaren berezko metodo inductiboak,

KE3: Ikastetxean eta ingurunean dagoen hizkuntzaeta kultura-an ezagutzen eta kritikoki baloratzen du, eta bere garapen pertsonalean integratzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko jarrera erakusten du eta hizkuntzak kultura-ondare gisa baloratzen ditu

(KD) KONPETENTZIA DIGITALA

KD1: Bilaketa aurreratuak egiten ditu, eta Interneten bilaketa-motorrek nola funtzionatzen duten ulertzen du, baliozkotasun-, kalitate-,

deduktiboak eta logikoak erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa ere, aukeratutako modalitatearen berezko egoeretan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako prozesua eta soluzioak kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.

STEM2: Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du aukeratutako modalitatearekin zerikusia duten fenomenoak ulertzeko eta azaltzeko, eta ezagutza konfiantza du, garapen-motor gisa. Horretarako, galderak egiten ditu eta hipotesiak formulatzen, kontrastatzen edo egiaztatzen ditu behaketaren, esperimentazioaren eta ikerketaren bidez. Halaber, lanerako egokiak diren tresnak erabiltzen ditu, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioesten du, eta eredu zientifikoarekiko ondorio oinarrituak eta koherenteak ateratzen ditu, erabilitako metodoen irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.

STEM3: Proiektuak planteatu eta garatzen ditu, behar edo arazo bati irtenbidea emango dioten produktuak elkarlanean sortzeko eta/edo erabiltzeko prototipoak edo ereduak diseinatuz eta sortuz, talde osoaren parte-hartzea saiatuz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta lortutako produktua proposatutako helburuen, iraunkortasunaren eta gizartean duen eragin eraldatzailearen arabera ebaluatuz.

STEM4: Ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, hizkuntza matematiko-formala...), kultura digitala etikaz eta erantzukizunez baliatuz, zientziak eta teknologiak bizi-baldintzetan egiten duten ekarpena modu kritikoa baloratzeko eta ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.

gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak aplikatuta, emaitzak modu kritikoa hautatuta eta informazioa modu egoki eta seguruan biltzeko erreferentzia egiteko eta ondoren berrerabiltzeko.



KD2: Eduki digitalak sortzen, integratzen eta berregiten ditu, banaka edo taldeka, segurtasunneurriak aplikatuz eta, une oro, egiletza digitaleko eskubideak errespetatuz, bere baliabideak zabaltzeko eta ezagutza berria sortzeko.

KD3: Gailu digitalak, tresnak, aplikazioak eta lineako zerbitzuak hautatu, konfiguratu eta erabiltzen ditu, eta ikaskuntza digitaleko bere ingurune pertsonalean txertatzen ditu, komunikatzeko, lankidetzan aritzeko eta informazioa partekatzeko. Horretarako, haien ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du.

KD4: Arriskuak ebaluatzen ditu eta neurriak aplikatzen ditu teknologia digitalak erabiltzean gailuak, horien pribatutasuna eta besteena, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena babesteko, eta teknologia horien erabilera kritikoa, legala, segurua, osasungarria eta iraunkorra egiten du.

KD5: Konponbide teknologiko berritzaileak eta iraunkorrak bilatzen ditu bere kabuz bere arazo eta behar digital zehatzetarako, bere gaitasun digitala hobetzeko modu gisa, eta teknologia mota horien bilakaera baloratzen du ikuspegi jasangarri eta etikotik.



STEM5: Osasun fisikoa eta mentala sustatzeko eta ingurumena eta izaki bizidunak babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzak planifikatzen eta abiarazten ditu, kontsumo arduratsua eginez, etikaren eta segurtasunaren printzipioak aplikatuz, balioa sortzeko eta bere ingurunea modu jasangarrian eraldatzeko, tokiko eremuan eta eremu globalean konpromisoak hartuz, herritartasun arduratsua gauzatuz.

STEM6: Ikerketa zientifikoak eta bere aplikazio eta aurrerapen zientifiko-teknologikoek gizartearen garapenean eta orainak eta etorkizunak planteatzen dizkioten erronken aurrean erabaki arrazoituak hartzean jokatzeko duten papera argudiatzen du.

(KPSII) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOAK

KPSII1.1: Baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta helburuen bilaketa modu autonomoan indartzen ditu, ikaskuntza eraginkorra izan dadin.

KPSII1.2: Nortasun autonomoa garatzen du, eta aldaketak, parte-hartze soziala eta bere jardura propioa modu konstruktiboan kudeatzen ditu bere bizitza zuzentzeko.

KPSII2: Bizimodu jasangarria modu autonomoan hartzen du eta norberaren eta besteen ongizate fisiko eta mentalari erantzuten dio, gizartean mundu osasuntsuago bat eraikitze laguntza bilatuz eta eskainiz.

KPSII3.1: Besteen emozioekiko eta esperientziekiko sentsibilitatea erakusten du, eta taldeak pertsonengan duen eraginaz jabetzen da, nortasun enpatiko eta independentea sendotzeko eta bere adimen emozionala garatzeko.

(HK) HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

HK1: Bere nortasunaren dimentsio sozial, historiko, zibiko eta moralari buruzko gertaerak, arauak eta ideiak aztertzen ditu, bere heldutasun pertsonala eta soziala sendotzen laguntzeko, herritarren kontzientzia eta kontzientzia arduratsua lortzeko, autonomia eta espiritu kritikoa garatzeko, eta besteekiko eta ingurunearekiko elkarrekintza baketsua eta errespetuzkoa ezartzeko.

HK2: Europako integrazio-prozesuari, Espainiako Konstituzioari, Autonomia Estatutuari, giza eskubideei eta norberaren historia eta kulturaondareari buruzko printzipioak, idealak eta balioak ezagutzen, aztertzen eta aplikatzen ditu hainbat testuingurutan, modu kritiko eta kontsekuentean, eta, aldi berean, talde-jardura guztietan parte hartzen du printzipio eta prozedura demokratikoetan, berdintasunarekiko konpromiso etikoan, gizarte-kohesioan, garapen iraunkorrean eta munduko herritarren lorpenean oinarritutako jarrerarekin.



KPSII3.2: Zereginak, baliabideak eta erantzukizunak modu orekatuan banatzen ditu talde batean, helburuen arabera, eta ikuspegi sistemikoa bultzatzen du, helburu partekatuak lortzen laguntzeko.

KPSII4: Hainbat iturritatik datozen datuak, informazioa eta ideiak alderatu, aztertu, ebaluatu eta laburbiltzen ditu, ondorio logikoak modu autonomoan lortzeko eta horien fidagarritasuna baloratzeko.

KPSII5: Epe luzera, ezagutza eraikitzeke helburuak eta prozesuak planifikatzen ditu, eta ezagutzaren eremuak erlazionatzen ditu, ezagutza hori transmititzeko, ideia sortzaileak proposatzeko eta arazoak autonomiaz ebazteko aukera emango dioten ikaskuntza-prozesu autoerregulatuak garatzeko.

(EK) EKINTZAIETZA- KONPETENTZIA

EK1: Beharrak eta aukerak ebaluatzen ditu eta erronkei aurre egiten die, zentzu kritiko eta etikoarekin, iraunkortasuna ebaluatuz eta, ezagutza tekniko espezifikoetatik abiatuta, ingurunean izan dezaketen inpaktua egiaztatuz, testuinguru lokaletara zein globaletara zuzendutako ideia eta irtenbide berritzaileak aurkezteko eta gauzatzeko, proiektzio profesional ekintzailea duten eremu pertsonal, sozial eta akademikoan.

EK2: Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak ebaluatu eta hausnartzen ditu, autoezagutza- eta autoeraginkortasun-estrategiak erabiliz, ezagutza ekonomiko eta finantzario espezifikoak barneratzen ditu, eta tokiko testuinguruetara eta testuinguru globaletara transferitzen ditu, lankidetzara- eta talde-lana arinduko duten estrategiak eta trebetasunak aplikatuz, beharrezko baliabideak bildu eta optimizatzeko, ekintzara esperientzia edo ekimen ekintzaile baliotsua eramango dutenak.

HK3: Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etiko eta filosofikoen a iritzi propioa eta arrazoitua hartzen du, balio, sinesmen eta ideien aniztasunari elkarriketaren aldeko jarrerarekin aurre eginez, diskriminazio eta indarkeria mota guztiak baztertuz, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasun eraginkorra aktiboki sustatuz.

HK4 : Gure bizimoduaren eta ingurunearen arteko interdependentzia- eta ekomendetasunharremanak aztertzen ditu, eta, horretarako, giza ekintzen aztarna ekologikoaren azterketa kritikoa egiten du, eta konpromiso etiko eta ekosozial arduratsua erakusten du Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta klima-alaketaren aurkako borroka lortzera bideratutako jarduera eta ohiturekin.

(KAKK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA

KAKK1: Edozein garaitako kultura- eta arteondarea hausnartu, sustatu eta kritikoki baloratzen du, ondare horren berezitasunak kontrastatuz eta bere nortasunetik abiatuz, aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna, berdintasuna eta aberastea defendatzeko

KAKK2: Ondarearen hainbat adierazpen artistiko eta kulturalen berezitasunak eta intentzionalitateak ikertzen ditu, harrera aktiboko eta gozameneko jarrera baten bidez, horiek gauzatzeko testuinguru, bitarteko eta euskarri desberdinak bereiziz eta aztertuz, bai eta horiek ezaugarritzen dituzten lengoia eta elementu tekniko eta estetikoak ere.

KAKK3.1: Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta espiritu kritikoz adierazten ditu, bere ekoizpen kultural eta artistikoak

EK3: Ideia eta konponbide berritzaileak sortzeko prozesua gauzatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, zentzu kritiko eta etikoarekin, proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko ezagutza tekniko espezifikoak eta estrategia arinak aplikatuz. Halaber, egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, besteentzako balioaren azken prototipo bat egiteko, arrakastaren eta porrotaren esperientzia kontuan hartuta, ikasteko aukera bat baita.

zorroztasunez eginez, modu aktiboan parte hartzeko giza eskubideak sustapenean eta praktika artistikoaren ondoriozko identitate pertsonalaren sozializazio- eta eraikuntzaprozesuetan.



KAKK3.2: Ea deskubritzen duen autoadierazpena, gorputz-interakzioaren eta hainbat tresna eta lengoaia artistikorekin esperimentatzearen bidez, eta ea aurre egiten dien egoera sortzaileei, jarrera enpatiko eta kolaboratiboarekin, autoestimuekin, ekimenarekin eta irudimenarekin.

KAKK4.1: Sormenez hautatzen eta integratzen ditu hainbat bitarteko eta euskarri, bai eta teknika plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, soinuak edo gorputzezkoak ere, proiektu artistiko eta kultural iraunkorrak diseinatzeko eta ekoizteko, eta eskaintzen dituzten garapen pertsonal, sozial eta laboralerako aukerak aztertzen ditu, interpretazioaz, egikaritzeaz, inprobisazioaz edo konposizioaz baliatuta.

KAKK4.2: Bere ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak planifikatu, egokitu eta antolatzen ditu, sormenez eta eraginkortasunez erantzuteko ekoizpen kultural edo artistiko indibidual edo kolektibo batetik eratorritako jarduerai, lengoaia, kode, teknika, tresna eta baliabide plastiko, bisual, ikus-entzunezko, musikal, gorputzezko edo eszenikoak erabiliz, prozesua zein azken produktua baloratuz eta eskaintzen dituzten aukera pertsonal, sozial, inklusibo eta ekonomikoak ulertuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Hizkuntzak eta hiztunak

*Kontzeptu soziolinguistikoak eta diziplina honen berezko metahizkuntza.

*Ahozko eta idatzizko testuen bidez euskararen euskalki nagusiak identifikatu eta aztertzeko estrategiak.

*Euskararen dialekto-aldaera nagusien konparazio-azterketa.

*Euskararen historia: jatorria, teoria nagusiak, lehen testigantzak eta lehen egileak.

*Euskal Herriko egungo errealitate soziolinguistikoa eta haren bilakaera denboran.

*Espainiako hizkuntzen eta gaztelaniaren dialektoen garapen soziohistorikoa eta egungo egoera.

Gaztelaniaren Espainiako eta Amerikako dialekto-aldaera nagusien konparazio-azterketa.

*Dialekto-aldaeren berezko ezaugarrien (fonikoen, gramatikalen eta lexiko-semantikoen) eta soziolektoen eta erregistroen ezaugarrien arteko desberdintasunak, euskaraz eta gaztelaniaz.

* Arau kultu eta arau estandar kontzeptuen ikerketa eta azalpena, euskararen eta gaztelanien duten baliagarritasuna eta aniztasuna kontuan hartuta.

*Hizkuntzen arteko gogoetarako estrategiak

*Hizkuntza-aurreiritziak eta hizkuntza-estereotipoak detektatzeko eta haiei aurre egiteko estrategiak, hizkuntzaren erabilera sexista barne.

*Hizkuntzen arteko kontaktuaren fenomenoak: elebitasuna, maileguak, interferentziak. Hizkuntzadiglosia eta dialekto-diglosia.

*Hizkuntza-eskubideak, legeetan duten adierazpena eta erakunde-adierazpenak. Hizkuntzen arteko bizikidetzaren ereduak, haien arrazoiak eta ondorioak. Gutxiengoaren hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta galzorian dauden hizkuntzak. Hizkuntza-iraunkortasuna.

*Euskararen erabilerarekiko interesa, ekimena eta jarrera proaktiboa, ikastetxean eta hainbat gizarteesparrutan.

*Hizkuntzak eta kultura defendatu eta garatzeko erakundeak.

*Hizkuntza eta euskal kultura garatu, sustatu eta normalizatzeko prozesuen aldeko organismoak, erakundeak, herri-mugimenduak, komunikabideak eta gizarte-sareak.

*Gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren ezagutza, Euskal Herriko egoera bereziki kontuan hartuta.

B. Komunikazioa

Hainbat esparrutako ahozko testuak, idatzizkoak eta multimodalak ekoizteko, ulertzeko eta kritikoki aztertzekeko estrategiak, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

B1. Testua eta testuingurua

*Komunikazio-ekintzaren osagaiak: egoeraren formalitate-maila eta izaera publikoa edo pribatua; solaskideen arteko gizarte-distantzia; komunikaxedeak eta asmoen interpretazioa; komunikazio-kanala eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuak.

* Testua. Haren definizioa eta sailkapen desberdinak.

*Testu-propietateak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna. Erreferentziakidetasuna.

*Testu-tipologia, testu-generoak eta erabilera-esparruak.

*Azalpen-testua. Sailkapena. Egitura. Testu-tipologiaren berezko ezaugarriak eta hari lotutako hizkuntza-ezaugarriak.

*Argudio-testua. Egitura. Testu-tipologiaren berezko ezaugarriak eta hari lotutako hizkuntza-ezaugarriak. Argudio motak.

*Hezkuntza-esparruaren berezko diskurtso-generoak. Testu akademikoak.

*Gizarte-esparruaren berezko diskurtso-generoak. Sare sozialak eta komunikabideak.

*Testu baten gaia eta tesia formulatzeko jarraibideak. Laburpenaren teknika.

Ahazkotasunari lotutako euskal kultura-tradizioak.

Euskal zinema eta antzerkia.

Euskal musika-ondare tradizional eta garaikideko erreferentziazko abestiak.

B2. Ulermena

*Ahozko eta idatzizko ulermenerako estrategiak: testuaren zentzu orokorra, zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsua hautatzeko eta gogoan

gordetzeko jarraibideak. Igorlearen asmoa. Hitzezko, hitzik gabeko eta hizkuntza ikonikoaren erabilera sexisten eta diskriminatzaileen detekzioa. Testuaren formaren balorazioa eta edukiaren interpretazio kritikoa.

Euskal tradizioko atsotitzak eta esaerak.

*Testuartekotasuna

B3. Ekoizpena

*Ahozko ekoizpen formalerako estrategiak: informazioaren plangintza eta bilaketa, testualizazioa eta berrikuspena. Entzuleenganako eta azalpendenborarako egokitzapena. Hitzik gabeko elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. Argudiatutako ahozko deliberazioa.

*Ahozko ekoizpenerako estrategiak. Lantzeko prozesua: informazioaren bilaketa, plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan.

*Aipamenak eta erreferentzia bibliografikoak egiteko prozedurak. Orri-oinak eta haien erabilerak. Bibliografia eta webgrafia.

Idaztearen bidez pentsamendua antolatzeke eta emozioak kudeatzeko jarraibideak: idazketa automatikoa, eskemak, kontzeptuzko mapak, laburpenak eta abar.

*Hitzezko hizkuntzaren, hitzik gabekoaren eta ikonikoaren erabilera ezsexistarako jarraibideak.

B4. Interakzioa

*Ahozko eta idatzizko interakzio formalerako jarraibideak. Hitza hartzeko eta emateko jarraibideak. Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-adeitasuna.

*Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez kudeatu eta ebazteko baliabideak: esanahia argitzeko, emozioak islatzeko, parafraseatzeko eta enuntziatuak berriz formulatzeko jarraibideak.

B5. Informazioalfabetatzea

*Informazioa fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideekin bilatu eta hautatzeko estrategiak; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia eskema propioetan, eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak; berregituratutako informazioaren komunikazioa eta hedapena, sormenez eta jabetza intelektualarekiko errespetuz. Informazio garrantzitsuaren edukiak kudeatzeko, informazio hori biltegiratzeko eta berreskuratzeke

jarraibideak. Albiste faltsuak eta gertakarien egiaztapena. Ziberamua.

*Etiketa eta aztarna digitala.

*Eskola-proiektuak egiteko plataforma birtualak.

B6. Hizkuntza-elementuen ezagutza eta diskurtsoerabilera

*Testuetan subjektibotasuna eta objektibotasuna adierazteko hizkuntzaformak.

*Erregistroa komunikazio-egoerara egokitzeko hizkuntza-baliabideak.

*Konektoreak, diskurtso-markatzaileak eta testuari kohesioa ematen laguntzen duten beste prozedura lexiko-semanticoko batzuk.

*Adizkien arteko erlazioak (testuaren kohesiorako prozedura gisa), aditzdenboren balorazioa eta erabilera bereziki kontuan hartuta.

*Testuen hizkuntza-zuzentasuna eta berrikuspen ortografikoa, gramatikala eta tipografikoa. Euskarri analogiko edo digitaleko hiztegien, kontsultaeskuliburuaren eta zuzentzaile ortografikoen erabilera eraginkorra.

*Puntuazio-zeinuak idatzizko testua antolatzeke mekanismo gisa, eta esanahiarekin duten lotura.

*Euskararen berezko hizkuntza-elementuak perpausaren osagaiak lotzeko (aditz-komunztadura eta deklinabidea).

B7. Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko gogoeta

*Bakarkako eta taldeko lana antolatzeke estrategiak. Erantzukizunak bere gain hartzeke jarraibideak.

*Norbere buruarenganako konfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.

*Autoebaluaziorako, koebaluaziorako eta autozuzenketarako erabilera komuneke estrategia eta tresna analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak.

C. Literatura-hezkuntza

C1. Irakurketa autonomia



Espezifikoa Euskara eta Literatura I eta Gaztelania eta Literatura I irakasgaietarako: Irakurketa-ibilbideari berari buruzko gogoeta eragiten duten literatura unibertsal garaikideko obren irakurketa, eta kulturaren interpretazioeztabaidan txertatzeko jarraibideak, behean adierazten diren jakintzak kontuan hartuta.

Espezifikoa Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II irakasgaietarako: Gidatutako irakurketarako proposamenei lotuta dauden eta irakurketaibilbideari berari buruzko gogoeta eragiten duten obra garrantzitsuen irakurketa, eta kulturaren interpretazio-eztabaidan txertatzeko jarraibideak, ondorengo jakintzak kontuan hartuta.

* Gomendio espezializatuen laguntzarekin obrak hautatzeko jarraibideak (literatura-saiakera eta kultura-ekoizpeneko eta kultura-kontsumoko egungo formak barne hartuta, Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II irakasgaien kasuan).

* Literatura- eta irakurketa-ibilbidean aktiboki parte hartzeko estrategiak, testuinguru presentzialean eta digitalean. Liburutegi mota ororen erabilera autonomia. Beste kultura-esperientzia batzuk izateko aukera.

Irakurketa-gustu pertsonalak argudioekin adierazteko jarraibideak. Irakurritako corpusaren dibertsifikazioa, liburuaren merkataritza-zirkuituak kontuan hartuz eta literatura kanonikoa eta kontsumokoa, klasikoak eta bestsellerrak bereiziz.

*Irakurketa-esperientzia komunikatzeko jarraibideak, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta alderdi tematikoak, generoa eta azpigeneroa, egituraren eta estiloaren elementuak eta obren balio etikoak eta estetikoak kontuan hartuz.

*Esperientzia pertsonala, irakurketa-esperientzia eta kultura-esperientzia mobilizatzeko eta, era horretan, irakurritako obraren eta egungo alderdien eta beste literatura- edo arte-adierazpen batzuen artean loturak ezartzeko estrategiak.

*Literatura ezagutza berriak eskuratzeko iturri gisa eta sentsibilitate estetikoak garatzeko laguntza gisa.

Hainbat euskarritako irakurgaiak gomendatzeko jarraibideak, alderdi tematikoak, formalak eta testuartekoak kontuan hartuz.

*Literatura-, musika- eta eszena-ondarearekin motibazio-lotura emozionalak (sentsazio berrien esperimentazioa), sinbolikoak (pertsona gisa aberasteko beharra) eta kulturalak ezartzeko estrategiak.

C2. Gidatutako irakurketa

Espezifikoa Euskara eta Literatura I eta Gaztelania eta Literatura I irakasgaietarako: Ibilbide tematikoetan edo genero-ibilbideetan inskribatutako

Espainiako Erdi Arotik Erromantizismora bitarteko literaturako klasikoen eta euskal literaturaren hasieratik XX. mendera bitarteko klasikoen irakurketa, behean adierazitako jakintzak kontuan hartuz.



Espezifikoa Euskara eta Literatura II eta Gaztelania eta Literatura II irakasgaietarako: Ibilbide tematikoetan edo genero-ibilbideetan inskribatutako euskal literaturako XX. mendetik egunera arteko obra garrantzitsuen irakurketa. Ibilbide tematikoetan edo genero-ibilbideetan inskribatutako Espainiako literaturako XIX. mendearen azken laurdeneko eta XX. eta XXI. mendeetako obra garrantzitsuen irakurketa, honako hiru ardatz hauen inguruan: (1) Espainiako kulturaren Zilarrezko Aroa (1875-1936); (2) gerra zibila, erbestealdia eta diktadura; (3) Espainiako eta Hispanoamerikako literatura garaikidea, honako jakintza hauek kontuan hartuz:

- * Literatura-eztabaiden edo literatura-elkarrizketen bidez obren interpretazioa era partekatuan egiteko estrategiak.
- * Literatura-generoa eratzen duten elementuak eta obraren zentzuarekin duten lotura. Adierazpen-baliabideen harreraren dituzten ondorioak.
- * Informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa erabiltzeko eta, era horretan, obrak interpretatzeko eta literatura-tradizioan duten lekua ulertzeko estrategiak.
- * Euskal literaturako, Espainiako literaturako eta literatura unibertsaleko testuen arteko erlazio esanguratsuak eta obren eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen testuarterako loturak, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. Jarraitutasun- eta haustura-elementuak.
- * Testuen interpretazioa argudioekin adierazteko estrategiak, aztertutako alderdiak integratuz eta balio kulturalak, etikoak eta estetikoak kontuan hartuz.
- * Adierazpen-irakurketa, dramatizazioa eta errexitatzea, inplikaturako ulermen-, bereganatze- eta oralizazio-prozesuak kontuan hartuz.
- * Literatura-asmoko testuak sortzeko jarraibideak, irakurritako obretatik abiatuz.
- * Genero-ikuspegian oinarritutako irakurketa.
- * Euskal kultura-ondareko obrak eta pasarteak.

D. Hizkuntzari buruzko gogoeta

Hizkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko ondorio propioak metahizkuntza espezifikoki batekin lantzeko estrategiak, komunikazio-unitateen behaketa, konparazio eta sailkapenetik eta hizkuntzen arteko kontrastetik abiatuz eta honako jakintza hauek kontuan hartuz:

* Ahozko hizkuntzaren eta idatzizko hizkuntzaren arteko desberdintasun garrantzitsuak eta gurutzaketak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak kontuan hartuz.

* Hizkuntza hainbat mailarekin konektatutako sistema gisa: fonologikoa, morfologikoa, sintaktikoa eta lexiko-semantikoa.

* Hitzen formaren (kategoria gramatikalak) eta funtzioaren (perpaus bakunaren eta perpaus elkartuaren funtzio sintaktikoak) arteko bereizketarako estrategiak.

* Perpaus bakunaren eta perpaus elkartuaren egitura semantikoaren (hitzezko esanahiak eta argudioak) eta sintaktikoaren (subjektua, predikatua eta osagarriak) arteko erlazioak, komunikazio-xedearen arabera.

* Hitzak eskuratu eta osatzeko prozedurak eta esanahian gertatzen diren aldaketei buruzko gogoeta. Hitzen arteko erlazio semantikoak. Balio denotatiboak eta konnotatiboak, testuinguruarekiko egokitasunaren eta komunikazio-xedearen arabera.

* Informazio gramatikal orokorra lortzeko hiztegien, gramatika-eskuliburuaren eta beste kontsulta-iturri batzuen erabilera autonomoa.

* Edozein hizkuntzatan eskuratutako ezagutzak aktibatze eta, era horretan, gainerako hizkuntzetan hizkuntza-gogoeta bultzatzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko estrategiak.

** Legearen arabera, asteriskodunak ezinbestekoak dira.*

Jakintza guztiak oinarrizkoak dira, baina asteriskodunak, ezinbestekoak.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOEN AZALPENA

1. Munduko hizkuntza-aniztasuna azaltzea eta balioestea, EAEko eta inguruneko errealitate elebidun eta eleaniztunaren ezagutzatik, euskararen eta gaztelaniaren dialekto-aberastasunaren ezagutzatik eta hizkuntzen arteko kontaktuari lotutako fenomenoei buruzko gogoetatik abiatuz, hizkuntzen arteko gogoeta bultzatzeko, hizkuntza-estereotipoak eta hizkuntza-aurreiritziak ezeztatze, aniztasun hori kultura-ondarearen iturri gisa baloratzeko eta euskararen erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.

Hizkuntza-aniztasuna egungo munduaren funtsezko ezaugarri bat da. Errealitate horri gehitu behar zaio eskola-hizkuntzaz bestelako hizkuntza edo dialekto desberdinetan hitz egiten duten gazteak ere baditugula gure ikasgeletan. Euskal eskolak, elebitasuna bermatzeko erronkari aurre egiteaz gain, pertsona eleaniztunak lortu behar ditu. Sistema eleaniztun horrek euskara du ardatz, gaur egun bi hizkuntza ofizialen artean dagoen desoreka (euskararen aurkakoa) gainditzeko eta bi hizkuntzen arteko gizarte-berdintasuna eta ikasleen aukeraberdintasuna sustatzeko. Horregatik, eta eskola euskararen eta hizkuntza horri lotutako kulturaren funtsezko gunea izan dadin, koherentziaz jardun behar dute hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek, eta euskararen ohiko erabilera normalizatua ziurtatu behar da esparru formalean eta informalean, barneko zein kanpoko jardueretan eta, oro har, eskola-jarduketetan. Hizkuntzaeskolek hizkuntza-aniztasun hori baliatu behar dute aniztasun horren ondoriozko kultura-esanahiak baloratzeko, hizkuntza-aurreiritziak saihesteko eta hizkuntzen eta haien aldaeren funtzionamenduaren ezagutza sakontzeko. Era horretan, hizkuntzen arteko gogoeta eta beste hizkuntza batzuetako hiztunekiko komunikazioa erraztuko da. Konpetentzia honen garapena, beraz, ez da mugatzen gure inguruko hizkuntzak eta dialektoak mapa batean kokatzera eta aniztasunaren arrazoi historikoak ikaskuntzaren azken helburu gisa ikastera. Aitzitik, hurbilketa hori hizkuntza- eta dialekto-aniztasuna islatuko duten izaera sozial eta kulturaleko ahozko testuei, idatzizkoei eta multimodalei buruzko azterketaren eta elkarrizketaren bidez egin behar da. Irakasgai hauen ikaskuntzaren xede diren hizkuntzen kasuan, ikasleek honako hauek ezagutu eta baloratu behar dituzte: euskararen milaka urteko historia, euskarak kulturaondareari egindako ekarpena, euskararen aniztasuna, erakundeek eta kolektiboek hizkuntzaren batasuna sustatzeko, euskalkietako hiztunen arteko komunikazioa errazteko eta euskararen iraupena zaintzeko egindako ahaleginak euskara batua sortzearen bidez, eta hizkuntzaren egungo egoera soziolinguistikoa. Ikasleek, gainera, euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa agertu behar dute, gure erkidegoko kultura-ondarea zaintzen laguntzeko. Gaztelania, bestalde, hizkuntza unibertsala eta polizentrikoa da, eta oso dialekto-aniztasun handia du. Heterogeneotasuna, beraz, bi hizkuntzen ezaugarria da. Hala ere, aldaera geografikoetako ezein ez da hartu behar bestea baino hobetzat, bakoitzak bere arau kultua baitu.

Ikasleek, gainera, hizkuntzen aniztasun geografikoari lotutako ezaugarriak eta soziolektoari edo hiztun batek komunikazio-egoera desberdinetara egokitzeko erabiltzen dituen erregistroei lotutako beste ezaugarri batzuk bereizten ikasi behar dute.

Azkenik, ikaskuntza hori guztia hizkuntzen arteko kontaktuaren esparruan gertatzen diren fenomenoek eta hizkuntza-bizikidetzako ereduak horren inguruan izan ditzaketen ondorioen ulermen kritikoan oinarritu dadin bultzatu behar da. Horren guztiaren azken helburua herritartasun sentsibilizatua, informatua eta hizkuntza-eskubide indibidual eta kolektiboekin eta hizkuntza gutxituen defentsarekin konprometitua sustatzea izango da.

2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu akademikoak eta komunikabideetakoak bereziki kontuan hartuz, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena jasoz, igorlearen ikuspuntua eta asmoa identifikatuz eta testu horien fidagarritasuna, forma eta edukia baloratuz, ezagutza eraikitze, iritzia osatzeko eta gozamen- eta aisiaaukerak zabaltzeko.

Ahozko ulermenerako estrategiak garatzeak komunikazioa asmoak interpretatzeko etengabeko prozesutzat hartzea dakar. Prozesu horretan, solaskideen arteko ezagutza partekatuak eta testuaren esanahiaz haratago joateko eta haren zentzua interpretatzeko aukera ematen duten testuinguruelementu eta elementu kotestual guztiek esku hartzen dute. Ahozko mezuak ulertu eta interpretatzeko irakatsi eta ikasi beharreko trebetasun espezifikoak behar dira, oinarritzkoenekin hasi (edukia aurreratzea, informazio garrantzitsua helburuaren beraren arabera gordetzea, gertakariak eta iritziak bereiztea edo diskurtsoaren zentzu orokorra eta zatien arteko erlazioa ulertzea) eta aurreratuenekin amaitzeraino (igorlearen asmoa identifikatzea, prozedura erretorikoak aztertzea, gezurrezko argudioak detektatzea edo testuaren fidagarritasuna, forma eta edukia baloratzea, besteak beste).

Etapan honetan, espezializazio-maila handiagoko testu akademikoak eta komunikabideetakoak erabiltzen dira ahozko ulermenerako estrategiak garatzeko. Horretarako, beharrezkoa da diskurtso-genero berrietara hurbiltzea, alde aurreko ezagutzen eta testua ulertzeko behar direnen arteko aldea desagerraraztea ahalbidetuko duten estrategiak zabaltzea, eta teknizismo, mailegu eta erdarakada ugariz osatutako lexikoarekin ohitzea. Garrantzi sozial eta zientifikoko eta euskal kultura-ondarearen inguruko gaiei lotuta dauden ahozko diskurtsoak presentzialki edo kanal digitalen bitartez txertatzea funtsezkoa da ikasleak bizitza sozialean aktiboki parte hartzeko zein ondorengo garapen akademiko eta profesionalerako prestatzeko.

3. Ahozko testuak eta testu multimodalak zehaztasun, jarioakortsun, koherentzia, kohesio eta erregistro egokiarekin sortzea, testu akademikoei lehenetasun berezia emanaz eta diskurtso-genero desberdinen berezko konbentzioak kontuan hartuz, eta ahozko interakzioetan errespetuz eta kooperazioan parte hartzea, ezagutza eraiki eta lotura pertsonalak ezartzeko zein gizarte-testuinguru desberdinetan era aktibo eta informatuan esku hartzeko.

Etapan honetan, arreta berezia jarriko zaie solaskideen artean distantzia soziala handiagoa den egoera publikoei. Egoera horietan, hizkuntza-erabilera



landuagoak, erregistro formalak eta hitzik gabeko komunikazioarekin zerikusia duen guztiaren kontrol kontzientea behar dira. Ahozko ekoizpen formalari lotutako trebetasunak, testuinguru analogikoetan zein digitaletan, funtsezkoak izango dira ondorengo garapen akademiko eta profesionalerako. Beharrezkoa izango da diskurtso-genero espezifikoaren gakoak ezagutzea eta ikasleei herritarrentzat, zientifikoki edo kulturalki garrantzitsuak diren edota curriculumedukiei lotuta dauden gaiak buruzko ahozko ekoizpenak aldizka egitea ahalbidetuko dieten ikaskuntza-egoerak proposatzea. Sekuentzia didaktiko horiek modu errekurtsiboan eta elkarlanean erantzungo diete prozesuaren hurrengo faseei (plangintza, ekoizpena, saiakuntza eta berrikuspena), azken produktura iritsi arte.

Ahozko interakzioetan hizkuntza-kontzientzia handiagoa izatea ezinbesteko baldintza da gizarte demokratikoetan modu aktibo, konprometitu eta etikoan parte hartzeko. Ahozko erabilerak komunikazio-xedera egokitzea eta solaskidearengan dituzten ondorioak neurtzea funtsezkoa da elkarrekiko errespetuan eta zaintzan oinarrituta egongo den eta erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuko dituen komunikazio eraginkor baterako. Hizkuntzaeskolek gizarte- edo hezkuntza-esparruen berezko testuinguruak (parte-hartzean oinarritutakoak) ahalbidetu behar dituzte, ikasleek hitza hartu ahal izan dezaten eta entzute aktiboko, elkarriketa-kooperazioko eta hizkuntza-adeitasuneko estrategiak garatu ahal izan ditzaten. Ildo horretan, ezin dugu ahaztu euskararen komunikazio-izaera, eta, beraz, konpetentzia espezifiko honen garapena bereziki garrantzitsua da Euskara eta Literatura irakasgaien, irakasgaia bera eta ikasleen gainerako irakasgaiak behar bezala ikasteko. Euskal eskolak, gainera, euskarak gizartean duen presentzia txikiagoa konpentsatzen saiatu beharko du, eta haren erabilera bultzatuko du hainbat testuingurutan. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek formatu berriak eskaintzen dituzte ahozko komunikazio multimodal, sinkrono edo asinkronorako, eta ikasleen ahozko ekoizpenak erregistratzea ahalbidetzen dute, testuinguru errealean zabaltzeko eta, geroago, aztertu, berrikusi eta ebaluatzeko (autoebaluazioa eta koebaluazioa).

4. Idatzizko testuak zentzu kritikoarekin eta hainbat irakurketa-xederekin ulertzea, interpretatzea eta baloratzea, testu akademikoei eta komunikabideetakoei arreta berezia eskainiz, zentzu orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutuz, informazio esplizitua txertatuz eta beharrezkoak diren inferentziak eginez, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiari eta formari buruzko gogoeta eginez eta kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, ezagutza eraikitzeke eta askotariko komunikazio-beharrei eta komunikazio-interesei erantzuteko.

Etapa honetan, espezializazio-maila handiko testu akademikoak eta garrantzi sozial, zientifiko eta kulturaleko gaiak lantzen dituzten komunikabideetako testuak erabiliko dira irakurmenerako estrategiak garatzeko. Testu akademikoak irakurri eta interpretatzeko, beharrezkoa da diskurtso-genero berrietara hurbiltzea, alde aurreko ezagutzen eta testuak ematen dituen arteko distantzia desagerraraztea ahalbidetuko duten estrategiak zabaltzea, eta askotan teknika den eta mailegu eta erdarakada ugariz osatuta dagoen lexikoarekin ohitzea.

Bestalde, kazetaritza-testuak irakurri, interpretatu eta baloratzeko, testu horiei zentzua ematea eta alborapen ideologikoak detektatzea ahalbidetzen duten testuinguru-gakoak ezagutu behar dira. Horrela egin ezean, irakurlea esandakoaren hitzez hitzeko interpretaziora mugatuta geratuko da, eta ez da gai izango ironiak, zeharkako aipamenak edo zentzu bikoitzak hautemateko edo egilearen komunikazio-asmoa neurtzeko. Hortaz, Batxilergoan irakurtzeko konpetentzia garatzeko, beharrezkoa da irakurtzeko motibazioa, konpromisoa eta jardunbideak azpimarratzea eta irakurtzeko ekintzaren aurretik, bitartean eta ondoren zabaldu behar diren

estrategiak ezagutu eta erabiltzea, askotariko iturriak erabiltzeko arintasunaren garapena bereziki kontuan hartuz, testu jakin baterako beharrezkoak diren aldez aurreko ezagutzarik eza konpentsatu ahal izateko eta fidagarritasuna bermatu edota iturrien helburua argitu ahal izateko.



5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, esparru akademikoko diskurtso-generoak bereziki kontuan hartuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskari zehatzei erantzun informatua, eraginkorra eta sormenezkoa emateko.

Gaur egun, idazten jakiteak euskarri eta formatu desberdinetan idazten jakitea esan nahi du (euskarri eta formatu horietako asko hipertestualak eta multimodalak dira), eta erabilera-esparruen (diskurtso-generoen) berezko idatzizko komunikazio-jardunak gauzatzeko «moldeak» ezagutu eta eskuratu behar dira. Batxilergoan, bereziki garrantzitsuak dira genero akademikoak (mintzaldiak, saiakerak, txostenak edo iruzkin kritikoak, besteak beste), hainbat ikuspegi, jakintza-alor edo diziplina bateratu behar baitira. Ikasleek, beraz, trebetasunez erabili behar dute informazioaren eta iritziaren txandakatzea (kontsultatutako iturriak kontsignatuz), eta azalpen-argitasun egokia agertzen saiatu behar dute, nolabaiteko estilo-bokazioarekin. Ikasleek, azken batean, zentzuen eraikuntza kolektiboaren parte izateak dakarren erantzukizunaz jabetu behar dute, ikuspuntu kultural eta etikotik abiatuta.

Idatzizko testu baten konposizioak (bakarka edo modu kolaboratiboan egindakoa) erregistroaren koherentzia, kohesioa eta egokitasuna zein zehaztasun lexikoa eta zuzentasun gramatikala eta ortografikoa hartu behar ditu kontuan. Halaber, diskurtsoaren hizkerari eta pertsonak (igorlea eta hartzaileak) diskurtsoan txertatzeko moduari buruzko erabakiak hartu beharko dira. Gainera, funtsezkoa da hizkuntzari eta estiloari arreta jartzea. Hortaz, hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta esplizitua eta erabilera testualetan duen proiektzioa bereizezinak dira. Hori dela eta, idazten irakatsi eta ikasteko prozesuaren barruan, arretaz eta modu jarraituan esku hartu behar da ikasgelan, eta ekoizpenak etengabe berrikusi behar dira ebaluazio eta koebaluazioko tresnen bidez.

6. Hainbat iturritako informazioa hautatzea eta egiaztatzea, haren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz, eta informazio hori integratzea eta ezagutza bihurtzea komunikatu ahal izateko, ikuspuntu kritiko eta pertsonala eta, aldi berean, jabetza intelektual errespetatuko duena agertuz, bereziki curriculumeko gaiei edota irakurritako literatura-obrei lotutakoei buruzko ikerketa-lanen esparruan.

Informazioaren ekoizpena, ugaritzea eta banaketa egungo gizarteak eratzen dituen printzipioa da, baina informazioaren eskuragarritasunak ez du ezagutza berez bermatzen. Hori dela eta, ezinbestekoa da ikasleek informazioa ezagutza bihurtzeko abileziak eta trebetasunak eskuratzeko, eta jakitea informazio hori noiz behar den, non bilatu behar den eta nola kudeatu, ebaluatu eta komunikatu behar den, ikuspuntu kritiko eta pertsonal bat hartuz eta jabetza intelektualarekin eta identitate digitalarekin jarrera etiko eta arduratsu bat agertuz. Alfabetatze Mediatiko eta Informazionalaren (AMI) aldeko apustua da. Horrek teknologien erabilera arduratsua



dakar, informazio partzial edo faltsuen detekzioa, iturrien etengabeko ebaluazioa, erabilera-denborak eta autorregulazioa bereziki kontuan hartuta.

Saiatu beharra dago ikasleek, bakarka edo kooperazioan, informazio-iturri fidagarriak, seguruak eta askotarikoak testuinguru sozialetan edo akademikoetan kontsultatu ditzaten, curriculumeko edo irakurritako beste literatura-obra batzuetako gaiei buruzko ikerketa-lanak edo ikerketa-proiektuak egiteko. Ikerketa-prozesu horietan, informazioaren plangintza, kudeaketa eta biltegiratzea era autonomoan egin behar da behar bezala berreskuratzeke, eta ezarritako aurkezpen-konbentzioei jarraitu behar zaie (aurkibidea, epigrafeetan oinarritutako antolaketa, aipamenak egiteko prozedurak, oin-oharrak, bibliografia eta webgrafia). Era berean, sormena garatu behar da eta testuingurura egokitu beharra dago ikaskuntza berria zabaltzean. Eskolako liburutegia edo mediateka, sormenezko ikaskuntza-espazioa den aldetik, ingurune aproposa izango da konpetentzia hau eskuratzeko.

7. Literatura garaikideko obra garrantzitsuak plazer- eta ezagutza-iturri gisa autonomiaz hautatzea eta irakurtzea, obren aniztasunari, konplexutasunari eta kalitateari dagokien bilakaera bat izango duen irakurketa-ibilbide bat konfiguratuz, eta irakurketa-esperientziak partekatzea, irakurketa-identitatea bera eraikitzeke eta irakurketaren gizarte-dimentsioaz gozatzeko.

Konpetentzia hau garatzeak autonomia sendotzeko eta irakurketa-identitatea bera eraikitzeke bidean aurrera egitea dakar. Ildo horretan, aldizkako denbora jarraitu bat eskaini behar zaio bakarkako irakurketari, eta irakurritako testuen artean loturak ezartzea erraztuko duten bakarkako edo taldeko gogoeta-uneak (hala nola solasaldi dialogikoen bidez) ahalbidetu behar dira.

Horretarako, aintzat hartutako testuen aniztasuna, konplexutasuna eta gozatzeko moduak —egungo literatura mota inprimatu eta digitalekiko eta sortzen ari diren kultura-jardunekiko kontaktua barne— eta irakurketaesperientzia adierazteko gaitasuna zabaldu behar dira. Xedea da entretenimendu soilarekin eta argudioetan oinarritutako irakurketarekin lotura txikiagoa izango duten eta literaturaren hautemate estetikora bideratuta egongo diren irakurketa autonomoen corpus baterako urrats bat egitea. Hortaz, obrei buruzko balio-iritzia askoz elementu gehiago izango ditu oinarri, testuartekotasunaren identifikazioa barne, eta irakurritako obren inguruko saiakeren ikerketa, irakurketa eta ekoizpena jasoko ditu.

Konpetentzia hau lagungarria da ikasleek honako hauek ahalbidetzen dituen literatura- eta kultura-jakintza bat eskuratzeko: irakurketa gidatuen eta autonomoen arteko erlazioak ezartzea, irakurritako obrei buruz ikertzea, testuak ulertu eta interpretatzeko norberaren irakurketa- eta kultura-esperientzia mobilizatzea, testuak beren ekoizpenaren testuinguruan eta inskribatuta dauden kultura-formetan kokatzea, eta obrak sortzeko oinarri diren konbentzioen funtzioak eta eraginak ulertzea. Helburu hori lortzeko, funtsezkoa da testuen corpus bat konfiguratzea. Corpus horretan, euskal kultura-ondareari lotutako obrak ugari izango dira, eta emakume idazleen kopurua esanguratsua izango da.

8. Euskal Herriko, Espainiako eta Hispanoamerikako literaturako obra garrantzitsuak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea, metahizkuntza espezifiko bat erabiliz eta esperientzia biografikoa eta literatura- eta kulturazagutzak mobilizatuz, askotariko testuen eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuen

arteko loturak ezartzeko, kultura-mapa bat osatzeko, literaturaz goatzeko aukerak zabaltzeko eta literatura-asmoko testuak sortzeko.



Konpetentzia honek ondoko interpretazio-trebetasunak garatzeko funtzioa betetzen du: literatura-ondareko obra garrantzitsuak irakurtzea; irakurketei buruz argudiatuz balio-irritzi bat hitzez adieraztea; eta eremu nazionalak, Europakoak eta unibertsalak uztartzeko eta literatura-obrak beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin lotzeko kultura-mapa bat eraikitzea. Irakurtzean gozamen kontzientea eta landua lortzeko, beharrezkoa izango da irakurketa gidatuekin aurrera egiteko prestakuntza-ibilbideak ezartzea. Ibilbide horietan oinarrituta, literatura-fenomenoaren funtzionamendua ulertu, historikotasun nozioan eta testuen arteko hierarkia nozioan sakondu eta ikaskuntza ikerketa-prozesuetan eta obren interpretazioaren eraikuntza partekatuko prozesuetan oinarritu ahal izango da.

Helburua ez da entziklopedia-asmoko literaturaren historia bati ekitea, ikasgelan modu gidatu eta partekatuan irakurriko diren obra kopuru txiki bat hautatzea baizik. Literatura-fenomenoaren bilakaerari eta obren arteko loturari buruzko ikerketa bultzatzeko, aukeratutako izenburuei hainbat testu gaineratuko zaizkie. Testu horiek obren testuinguru historikoa eta kulturala zein literaturatradizioan duten lekua, haien interpretazioen historia eta beste forma artistiko klasiko eta egungo batzuekiko elkarrizketa ulertzen lagunduko dute. Azken batean, ikasgelan modu gidatu eta partekatuan irakurtzeko literatura-ondareko obra garrantzitsu batzuk —emakume idazleen obrak barne— hautatu behar dira, literaturaren eraikuntza eta funtzionamenduaren zein beste testu batzuekin eta ekoizpen-testuinguruko balio ideologiko eta estetikoekin ezartzen diren erlazioen eta oraina argitzeko eta azaltzeko duten ahalmenaren elementu garrantzitsuak erakusteko. Halaber, literatura-testuak estilo-kontzientziarekin sortzea bultzatu behar da, generoen konbentzio formalak errespetatuz.

9. Hizkuntzaren egiturari eta erabilerei buruzko ezagutza esplizitu eta sistematikoa sendotzea eta horretan sakontzea, eta terminologia egokiarekin egin beharreko hizkuntza- eta diskurtso-aukeraketei buruz era autonomoan gogoeta egitea, hizkuntza-kontzientzia garatzeko, komunikazio-errepertorioa handitzeko eta ahozko eta idatzizko trebetasunak zein ulermen eta interpretazio kritikorako trebetasunak hobetzeko.

Hizkuntzaren azterketa sistematikoa baliagarria izan dadin, ikasleen metahizkuntzazko konpetentzia sustatu behar du, eta hiltunen berezko erabilera errealekin eta testuingurukoekin lotu behar du. Metahizkuntzazko gogoetak ikasleek hizkuntzaren erabiltzaile gisa duten ezagutza intuitiboan oinarritu behar du, eta zubiak ezarri behar ditu hizkuntzaren ezagutza sistematikoarekin. Horretarako, terminologia espezifiko erabili behar da, eta maila morfosintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa bateratu behar dira hizkuntzaformak aztertzean.

Beraz, gramatikaren ikaskuntza egituratuari ekin behar zaio ikerketaprozesuen bidez, eta lotura bat ezarri behar da ezagutza gramatikal esplizituaren eta hizkuntzaren erabileraren artean, gogoetatik eta ikerketa-proiektu txikietatik abiatuta. Horretarako, esanahiaren behaketatik eta hizkuntza-formek diskurtsoan betetzen duten funtziotik abiatu beharra dago, honako hauetan oinarrituta orokortzera eta sistematizaziora iristeko: enuntziatuen manipulazioa, perpausen arteko kontrastea, hipotesi eta arauen formulazioa, kontradibideen erabilera edo beste hizkuntza-fenomeno batzuekiko lotura. Halaber, emaitzak metahizkuntza egokiarekin komunikatu behar dira. Azken batean, metahizkuntzazko eta hizkuntzen arteko gogoeta sustatu behar da, ikasleek hizkuntzaren inguruan pentsatu eta hitz egin dezaten, ezagutza horrek norberaren ekoizpenen hobekuntza eta besteen ekoizpenen ulermen eta interpretazio kritiko hobea eragin ditzan eta, aldi berean, hizkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko ezagutza esplizitu bat pixkanaka eraikitzea ahalbidetu dezan.

10. Komunikazio-jardunbideak bizikidetza demokratikoaren, gatazkak elkarrizketa bidez kudeatu eta konpontzearen eta pertsona guztien eskubideberdintasunaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta hitzaren bidezko nagusikeriak baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa eta demokratikoa ere bultzatzeko.



Konpetentzia hau eskuratzean, pertsonak eraginkorrak izango dira komunikatzeko garaian, eta, gainera, komunikazioaren ezinbesteko dimentsio etikoa alde batera utziko ez duten helburu batzuen zerbitzura jarriko dituzte hitzak.

Komunikazio pertsonalaren esparruan, hizkuntza-hezkuntzak enpatian eta errespetuan oinarritutako pertsonen arteko harremanak lantzen lagundu behar du, eta entzute aktiborako, komunikazio asertiborako, argudioetan oinarritutako deliberaziorako eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketa eta konponketarako tresnak eskaini behar ditu. Hizkuntzaren erabilera sexistak, diskriminatzaileak eta manipulatzailerak eta hitzaren bidezko nagusikeriak desagerraraztea agindu etikoa da. Hezkuntza-, gizarte- eta lanbide-esparruetan, hizkuntza-hezkuntzak herritartasun aktiboa gauzatuz hitza hartzeko trebatu behar du. Herritartasun hori konprometituta egongo da gizarte bidezkoagoak, demokratikoagoak eta, gizateriak aurrean dituen erronka handiei dagokienez (planetaren jasangarritasuna, indarkeriak desagerraraztea —genero-indarkeria barne—, gora doazen desberdintasunak desagerraraztea eta abar) arduratsuagoak eraikitzearekin.

[Dokumentu ofiziala](#). Iturria: Hezigunea



Sergio Tejero, Koldo Mitxelena BHIko "BeA" (Berrikuntza metodologikoaren Arduraduna)-(r)en 'KMK', Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

Jatorrizko informazioa eta legedia, [Hezigunean](#).